

Elosuko auzolandegia: Gazte ekintzaileei zuzendutako auzolandegia

2007/05/24

Gaztea zara eta etorkizunean zure enpresa propioa sortzea gustatuko litzazuke?

Aurtengo udari begira, eta Europako Fondo Sozialak finantzaturik, ekimen berri bat martxan jartzen ari da “*Saiolan, Arrasateko Enpresa eta Berrikuntzarako Zentroa*”. Ekimen honek noizbait beraien enpresa propioa sortzea burutik pasatu zaion jendea batu nahi du eta baita inoiz burutik pasatu ez arren ere artikulu hau irakurtzean “Zergatik ez?” pentsatzen dutenak.

Auzolandegia **Elosun**, Bergarako auzo batean, ingurune natural eta pribilegiatu batean garatuko da eta bertan pertsona ezberdinak ezagutzeko eta hauekin elkarbizitzeko aukera izango da. 15 eguneko elkarbizitza (**uztailaren 16tik 29ra**) suposatzen duen ekimena da esan bezala, antzeko kezkak dituzten, garapen profesionalerako alternatibak bila dabilzan eta autoenplegua etorkizuneko aukera bezala ikusten duten pertsonak bildu nahi dituenak.

Egunak 3 saiotan banatuko dira: 1) Goizetan **lan fisiko bat** egingo da (ondarearen hobekuntza edo berrikuntza lana); 2) Arratsaldeetan **formazio saioak** izango dira Ekintzailatza, Espiritu kooperatiboa eta Enpresen Bideragarritasun Planen ingurukoak; Eta gauean talde dinamika desberdinak landuko dira.

Informazio gehiago nahi duenak edo zuzenean ekimenean parte hartzeko izena eman nahi duenak Saiolanera deitu dezake (**943 71 20 72**, Argiñegatik galdetu), korreo elektronikoko bat (**alarrea@eps.mondragon.edu**) bidali edota **www.equal-ariadna.net** web gunean sartu daiteke. Izena emateko azken data ekainaren 15a izango da.

OHARRA: Partehartzaileek jasotako formazioaren ziurtagiri bat jasoko dute.

Izena emateko fitxa lortu

